

FINALEAN AINTZAT HARTZEKO OHARRAK

NAFARROA ARENARA NOLA IRITSI? ZEIN ZERBITZU ESKAINIKO DIRA? NON BAZKALDU?

Galdera horiek eta beste hainbat argitzeko irakurri arretaz ohar hauek.

Abenduaren 18a gainean da, eta Iruñeko Nafarroa Arenan elkartuko gara Bertsolari Txapelketa Nagusiko finala jarraitzeko. Egun horretarako baliagarriak izango zaizkizun oharrak dituzu honakoak, eguneko plana errazteko eta hartzen momentuko ezustekoak saihesteko.

Mesedez, azken tartea oharrok arretaz irakurtzeko; asko erraztuko digu finaleko eguna denoi!

Adi beharizan bereziren bat edo Haur Txokoa zerbitzua baliatu behar duzenok; kasu horretan abenduaren hasierarako jarri behar baita harremanetan antolakuntzarekin (ikus beheko oharretan epe zehatza).

Halaber, Bertsozale Elkarteak autobuserako eta bazkarirako txartelak ere eskaintzen ditu, eta horiek ere lehenbailehen hartzeko gomendioa egiten dizugu (abenduaren 6an eta abenduaren 15ean amaituko da epea, hurrenez hurren).

Nola iritsi Nafarroa Arenara?



Antolakuntzak jarraitako autobusak edo garraio publikoa erabiltzea eskatu nahi dizugu Bertsozale Elkartetik. Ohar hau oso kontuan hartzea eskertuko dugu denok, pilaketak ekiditeko eta horrek eguneko martxa ez eragozteko.



Bertsozale Elkarteak antolatutako autobusak

Finalera autobusez joateko autobusak antolatu ditu Euskal Herriko Bertsozale Elkarteak, Aizpurua Autobusak taldearekin lankidetzan.

- www.bertsozale.eus atarian eros ditzakezu txartelak, abenduaren 6ra arte (egun hori barne). Txartelak 15 euro balio du.
- Sarrera erostean, zure abiapuntua zein den zehaztu beharko duzu; Euskal Herri osoko 65 herritatik abiatuko dira Iruñera autobusak.
- Bertsozale Elkarteak abenduaren 12an jakinaraziko du autobus bakoitzaren ibilbidea, geltokiak eta ordutegia, www.bertsozale.eus atarian eta zure posta elektronikoa jasoko duzun mezuan.
- Autobusak 09:00ak eta 10:00ak bitartean iritsiko dira Iruñera. Nafarroa Arena ondoan geldituko da autobusa, eta leku berean jasoko zaitu arratsaldeko saioa amaitzean. Beraz, gogoan hartu zure autobus zenbakia.



Garraio publikoa

- Iruñerriko autobus zerbitzu publikoko 1, 6, 9, 11 eta 16 lineek konektatzen dute Nafarroa Arena (edo inguruak) hiriko erdigunearekin zein beste auzoekin. Ordutegiak eta prezioak: www.infotuc.es.



Autoak

- Iruñera A15 autobidetik bazatoz, 83 edo 83B Irteerak baliatu beharko dituzu, eta antolakuntzaren seinaleak jarraitu.
- Nafarroa Arena inguruetan, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren campusean zein Galaria merkataritzagunean (La Morea) hainbat parking daude (ikus beheko planoan). Antolakuntzak, lehentasunez, P5 eta P6 erabiltzeko gomendioa egiten dizu.
- **Adi nabigatzaileekin!** Zenbaitek lehenesten duten ibilbidea ez da aproposena, bide estuetatik bideratzen baitu eta arazoak sor baititzake errepidean. Honako ibilbidea jarraitzea gomendatzen dugu Euskal Herriko Bertsozale Elkartetik. Errepidean bertan ere topatuko dituzu bidea erakusten duten seinaleak, egunerako apropos jarriak.



Nola iritsi



Ikusi bideoa

Nafarroa Arenara sartzeko

Une oro jarraitu atean eta inguruan dauden antolakuntzako langileen jarraibideei.

- Entzule bakoitza dagokion eremura sartu beharko da, eta behin barruan, ezingo du eremu batetik bestera pasa.
- Eremu bakoitzak bere sarbide propioa du: harmailetarako **A, B** zein **C** atea erabili beharko dira; pistarako, **PISTA 1** eta **PISTA 3** sarrerak; eta erreboterako, **A** sarrera.
- Eremu bakoitzeko eserlekuak ez dira zenbakituak.
- Sarrera erakusterakoan, eskumuturreko bat jantziko dizute antolakuntzako kideek. Aurrerantzean, hori izango da egun osoan zehar sarrera gisara erabiliko dena. Ez kendu, beraz.
- **Aretora ezingo da objektu puntadunik (tartean, aterki handirik), beirarik, latarik, alkoholik edota sua eragin dezakeen materialik sartu. Objektu horiek ekartzekotan, eguerdirako behar dituzulako, Sadar estadioan jarriko den kontsignan gorde beharko dira.** Estadioaren 24. atearen ondoan egongo da kontsigna, eta 08:00etatik 11:30era bitarte utzi ahaliko dira gauzak, eta goizeko saioa amaitutakoan jaso. Arratsaldean ez da kontsigna zerbitzua izango.
- Aniztasun funtzionala duten pertsonen harmailaren eremutik segitu beharko dute saioa, eta **C** atea erabili beharko dute aretora sartzeko. Handik, antolakuntzako kideek lagunduko dituzte haien tokietara. **Pertsona horien behar bereziei erantzuteko, finala baino lehen antolakuntzarekin harremanetan jartzea eskertuko genuke, txapelketanagusia@bertsozale.eus helbidera idatzita.**



Nafarroa Arenan

Bertsozale Elkarteak 350 lagun baino gehiago jarri ditu lanen finaleko eguna ongi ateratzen. Langileak ongi identifikatuta egongo dira, eta bertsozaleak lagunduko dituzte saio hasieran, bitartean eta amaieran. Bertsozale Elkarteak langileen eta boluntarioen lantaldearen zeregina gauzak ahalik eta hobekien joatea da, mesedez lagundu diezaiegun lan horretan, haien argibideak segituz. Bertsozale asko gaude finalean, eta gauzak ez dira beti errazak, pazientzia eta errespetua eskertzen dizuegu.

- Ordutegia: goizeko saioa 11:00etan hasiko da (ate irekiera, 09:00etan); arratsaldekoa 17:00etan (ate irekiera 16:00etan).
- Aretorekin arkitekturek ez du pankarta edo antzekorik zintzilikatzea baimentzen, publikoaren ikusgarritasunean eragingo lukeelako.
- Goizeko saioa amaituta, Nafarroa Arena hustu egingo da. Antolakuntza ez da entzuleak lekua gordetzeko utz ditzakeen objektu pertsonalen arduradun egingo.

Guneak

- **Informazio gunea:** A atearen ondoan egongo da. Edozein argibiderik behar baduzue, horra jo dezakezue. Behin saioa hasita, barrura mugituko da.
- **Puntu morea:** Informazio gunean bertan, A atearen ondoan. Bertsolari Txapelketa Nagusia eraso matxistarik gabeko bertsoaren festa izatea nahi dugu, eta saioan gerta daitezkeen eraso matxistek erantzuteko atonduko dugu puntu morea.
- **Tabernak:** Solairu guztietan daude, bigarrenetan salbu. Aretu barruko tabernak irekita egongo dira saioan zehar.
- **Komunak:** Solairu guztietan daude.
- **Erretzeko guneak:** -1 solairuan PISTA3 atean; 0 solairuan A eta C ateen inguruan.
- **Haur Txokoa:** -1 solairuan dago, pistako mailan. Kontuan izan handik ezingo dela saioa ikusi. **Zerbitzu hau baliatuzko, ezinbestekoa izango da abenduaren 10a baino lehen izena ematea, txapelketanagusia@bertsozale.eus helbidera idatzita.**
- **Postuak:** 0 solairuan hainbat elkarte eta erakunde jarraitako postuak egongo dira.
- **Kontsigna:** Nafarroa Arenara sartu ezin den objekturik ekartzekotan (ikus gorago agertzen den oharra), Sadar estadioan egongo da horiek uzteko kontsigna, estadioaren 24. atearen ondoan. 8:00etatik 11:30era utzi ahal izango dira objektuak, eta goizeko saioa amaitutakoan jaso, arratsaldean ez baita zerbitzurik eskainiko.


2




1



0



-1



Eguerdian: bazkaria

Lehen aipatu bezala, kontuan izan Nafarroa Arenara ezingo duzula edozer gauza sartu. Janaria bai, ogitartekoa edo kristalezko ontzian ez doan janaria; baina beirarik, labanik eta halakorik ez. Horiek, ekartzekotan, Sadarreko kontsignan utzi beharko dituzu, 08:00etatik 11:30era bitarte. Goizeko saioa amaitzen denean irekiko da berriz kontsigna, han utzitako gauzak hartzeko. Arratsaldean ez da kontsigna zerbitzurik izango.

Nafarroa Arenaren inguruetan, bazkaltzeko bi aukera eskainiko ditu Bertsozale Elkarteak:

- Sadar estadioan, etxetik eramandakoak erabiltzeko aukera izateko aukera izango duzu. Estadioko taberna eta komunak erabilgarri izango dira, eta musika ere egongo da tarte horretan.
- NUPeko kirol instalazioetan, Zubillaga Catering enpresak menua eskainiko du, 24 euroan. www.bertsozale.eus atarian duzu bazkari txartela erosteko aukera, abenduaren 15a baino lehen. Haragidun menua eta menu beganoa izango dituzu aukeran (adi txartela hartzerakoan bietako zein hartzen duzun), biak Euskal Herri osoko produktuekin osatuak.



Ikusi bideoa

Saioa amaitutakoan

Eskertuko dugu zure ingurua ahalik eta txukun erabiltzeko. Halaber, egin kasu bertsozale Elkarteak antolatutako autobusen kasuan, utzi zaituzten tokian egongo dira zain. Jende asko izango gara saiotik bueltan errepidean; pazientzia eta kontuz ibili, beraz!

